

Prentsa oharra

Nota de prensa



Udalak 14 milioi euro desblokeatu ditu hirian 58 proiektu egiteko

Aurrekontuaren kopuru hori atxikita geratu zen pandemiaren ondorioz.

Donostiako Udalak 58 proiektu jarriko ditu abian hiriko hainbat eremutan, eta hauetan 14 milioi euro inbertituko ditu. Udalak 2020ko ekitaldiko finantza- eta aurrekontu-etorkizuna argiago definitu ondoren, erabaki du berrogeita hemezortzi jarduera egitea hiriko hainbat eremutan. Proiektuek barne hartzen dituzte mantentze- eta hobekuntza-jarduketa txikiak eta anbizio handiagoko esku-hartzeak.

Eneko Goia hiriko alkateak adierazu du Udalak “zuhurtzia-irizpide baten arabera jokatu zuela, Covid-19aren pandemiak eta ondorio ekonomikoek sortutako ziurgabetasunengatik”. Ekitaldi honetako kontuen egoera argitu ondoren, alkateak defendatu du “ekitaldi honetako proiektu batzuk gauzatu behar direla”. Eneko Goiak aldeztu duenez, 60 bat jarduketa hauek “hiriko hainbat tokitan banatuta daude, eta herritarrek oso beharrezko eta espero dituzten jarduerak egitea ekarriko dute”.

“Udalak bere helburuen zati bat gauzatu ahal izateak erakusten du ez ditugula gure lehentasunak bertan behera utzi, nahiz eta lehentasun horiek birprogramatu diren egoeraren eta beharren arabera”, adierazi du.

Udalak 64,5 milioi euroko gastua aurreikusi zuen 2020an inbertsioak egiteko, eta hori pandemiaren etorrerak baldintzatu zuen. Desblokeoari esker berraktibatzen diren hiri-proiektuen artean, aipatzekoak dira tamaina handiko batzuk, hala nola Arteleku plaza abian jartzea, Txomin Enea berriaren ardatz nagusia errematatuko duena eta 1,7 milioi euroko aurrekontua duena, Amara auzoko Ikasketen plaza berritzea 850.000 euroko inbertsioarekin, eta Kontxako bidegorria babestea 761.000 euroko aurrekontuarekin.

Marisol Garmendia Espazio Publikoetako eta Hiri Proiektuetako zinegotziak esan duenez, “osasun-krisi honen erdian, berri ona da hiri osoarentzat eta auzoentzat, egoera ekonomikoaren ondorioz aparkatuta geratu ziren proiektuak aurrera atera ahal izatea. Donostiar askoren bizi-kalitatea hobetuko duten jarduerak dira eta, hala ere, hiriak martxan jarraitzen duela adierazten dute. Auzoetako, parkeetako, ikastetxe publikoetako, kirol- eta gizarte-ekipamenduetako eta hiriko eraikin enblematikoetako jarduerari dagozkien proiektuak dira”.

Mantentze-lanak eta hobekuntzak

Desblokeoari esker, proiektu garrantzitsuei ekingo zaie berriro, hala nola, Matigoxotegi eta Cesar Benito futbol zelaiak berritzea eta Jolastokieta inguruan igogailu berri bat eraikitzea, erabiltzaileen eta bizilagunen eskaera historikoei erantzuteko.

Ekialdeko Barrutiak 350.000 euroko beste proiektu batzuk ere hasi ahal izango ditu berriro, eta horiei beste batzuk gehituko zaizkie Altza aldean, hala nola trafikoa semaforoz eta biribilgunearen bidez baretzea Herrera pasealekuan, 154.654 euroko aurrekontua duena.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Hiria mantentzearekin zerikusia duten jarduketak bultzada hartzen dute ere, hala nola, haur parkeak aldatu edo berritzea, zauhaitzen mantentzea, galtzada konpontzea edo altzariak pintatzea. Halaber, hainbat erreforma egingo dira ikastetxeetan, hala nola Amara Berri Morlans, CE Intxaurre eta Alzako CE San José de Calasanz ikastetxeetako patioak hobetzea, Amara Berri Urdanetako espazioak egokitzea edo Herrerako HKko arotz-lanak eta fatxadak pintatzea.

Berrartzen diren beste proiektu batzuk hauek dira: hiriko gunek kritikoak hobetzea eta argizatzea, Victoria Eugeniaren fatxada historikoaren zati bat zaharberitzea, Emakumeen Etxea mantentzeko lanak, edo hainbat eraikinen birgaitze energetikoak hobetzea.

Proiektuen amaiera

Beste proiektu batzuk amaitzeko berraktibatuko dira: Dbuseko kotxeretako lanak, Larratxoko igogailua, Astiñeneko zubiaren amaiera edo Antso Jakitunaren birmoldaketa. Alzako kiroldegiko lanak ingurua berriz urbanizatuz bukatuko dira (900.000 euro).

Donostia, 2020ko abenduak 1